

"Nere lanen balioa neurtu nahi nuen argitara aurretik" dio Ugaldek

M.A.

Deia, 1984-11-28.

"Euskaraz ez naiz erdaraz bezain seguru senditzen. Euskarazko neure lana neurtzeko ez naiz gai. Argitara aurretik balio duten ala ez jakin nahi nuen. Horregatik aurkeztu nuen ipuin hau Irun Sarira. Epai-mahaiak baliorik aurkitu diola jakiteak asko poztu nau" aitortu dio DEIAri, Martin Ugalde, Irun Sariko ipuinlari irabazleak.

Harrimuga galduen itsumundua Durangoko azokarako argitaratuko du Erein argitaldaria, Martin Ugalderen beste bost konturekin, "Mantal urdina" deituraz. Egileak berak adierazi digunez "lokarri bat dute denek: zahartzaroa. Adinarekin ahalmenak galtzen ditu gizonak. Aspaldian gertatutako gauzatxoak bururatzen zaizkio bapatean. Tristeak batzutan, pozkarriak bestetan. Oraingo honetan kezka txar bat oroitu zaio. Bakartua eta baztertua gertatu ohi da gizakia zahartzaroan. Baina bakardade hori oso aberatsa da. Bizitzako gorabehera guztiak gogoratzeko eta berritzeko aukera da. Bizitzako mugak, erlijioaren, lanbidearen eta abaren aldetik izan ohi diren mugak azaltzen dira ipuin hoietan, kasu oso desberdinak aztertuz".

Denbora asko behar

Ipuin sailera euskarazko 25 kontu aurkeztu ziren Irungo sarian; olerkian, 10, eta saiakeran, 2. "Sortze lana luzea da, bakartia eta isila. Norberak ez daki askotan itxurazko lana burutzen ari den ala ez. Ipuingintza asko hobetu da Euskal Herrian. Hamarhamabost ipuinlari nahiko onak baditugu. Bernardo Atxaga, Sarrionandia eta abar oso onak dira. Gauza eta modu berriak eskaintzen dituzte. Nik ere neure burua neurtu nahi nuen lehiaketa bateko galbahean, euskaraz eta bait dut konfidantza gehiegirik".

Martin Ugaldek ongi gairatu du frogaldia, 25en artean lehen saria irabaziz. Ez du lehen aldia. Iaz, Inazio Aldekoa saria irabazi zuen Gasteizen *Erregetako izpiritu beltzarana* ipuinaz. "Sariketako dirua ondo etortzen da. Oraingoan neuk uste baino gehiago da, gainera, egunkarietara irakurri dudana, 200.000 pezeta dela uste dut. Baina idazle bat ezin da sarieratik bizi. Sortze lana luzea eta neketsua da. Etxean beharrezkoa duzuna izango duzun segurantzia behar da. Sariketekin bakarrik ez da arazo hori konpontzen".

Idazleei laguntzak

Gipuzkoako Diputazioak idazleei eskaintako laguntzari esker burutu zuen Martin Ugaldek ipuin sorta hau. Eta euskararen Arazoetarako Zuzendaria denez oso kezkatuak

da euskal idazlearen ezinbiziak. "Bostehun mila pezetako bekak eskaini dizkiegu idazleei lan egin dezaten. Zerbait da. Liburugintzarako hoge milioi eman ditugu. Euskarazko aldizkariarentzat beste hoge. Euskara mintzatua lantzeko diskorik ere burutu da. Euskal Herri osoan barna erakutsiko diren bideo eta filmeak ere egin dira. Han eta hemen antolatu ohi diren ihardunaldietarako gutxi-asko laguntzen dugu. 150.000.000 pezeta inguru zabaltzen dira era honetan".

Martin Ugaldek bere haragian bizi du idazlearen ezin bizia. Idaztetik bizitzea nonahi da zaila. Euskal Herrian ezina. Beste nonbaitetik atera behar da bizimodua. Loari, familiari edo atsedeneri orduak kenduz ari behar da. Eta jakina lan luzeak burutzeko ez da astirik. Ipuin eta kontu laburretarako moldatzen da zenbait. "Nobelagile gutxi da gure artean. Eleberriak denbora asko eskatzen du. Barruko pake haundia behar da. Bizimoduaren kezka larririk ez da behar. Nik neuk ezin dut orain ezer idatzi. Ez dut betarik. Kargu honek bestela ere nahiko buruhauste ematen dit. Istilu gehiegi dut, idazteko patxada hartzeko. Sortze lanak denbora eta izpituaren lasaitasuna eskatzen ditu".